

{ asteari zeharka begira } **Maddi TXINTXURRETA AGIRREGABIRIA**

Segurtasunak ez luke askatasuna txikitu behar

Mugimendu feministak pentsatu eta egin duen bideari esker identifikatu eta adierazi dira indarkeria mota ugari, irakatsi du indarkeriok gurutatu ditzakeela modu desberdinetan gorputz jakin batek, testuinguru zehatz batean, okupatzen duen espazioaren arabera. Yaneli Gonzalesen hilketa salatzerakoan, adibidez, Emakume Migratu Feministek adierazi zuten erasotzailearena soilik ez, sistema kolonial, patriarkal eta arrazista oso baten biktima ere badela. Gisele Pelicoten kasuan, hainbat feministak bateratu dute beraien ahotsa oraindik hegemonikoa den narrati- ba patriarkalak arrakalatzeko: bortxaketak, hiltze matxistak gertatzen badi- ra, hauek existitu daitezen prestatu den gizarte bat bi- zi dugulako da, eta ez ber- tan munstroak, gaixoak, zoroak, bizi direlako.

Horregatik, inoiz ez du funtzionatu sagar usteltzat ditugun horiek jendartetik erauzteak eta, hala ere, tematuta segitzen dugu ibaiari ur tantak lapurtzen, ea inoiz korrontea eteten dugun. Antipunitibismoari bu- ruz entzutean, zenbait pertsona asaldatu egiten dira, esanez bizikidetza ez dela posible komunitatean era- sotzailerik badago. Bada, ez al gara jada hori egiten ari? Ez al gara, egunero eta edonon, erasotzaileen bizi- kide? Zigorren eta segurtasunaren mitoak itsututa ardurak hartu beharrean arduradunak kanporatzen jarraitzen badugu, indarkeriok sortzen dituzten siste- mak betikotzea besterik ez dugu lortuko.

Azken asteetako titularrak: Luhusoko festak, espa- zio publikoa, bortxaketa bat. Gisele Pelicotek bere se- narrarekin, Dominique Pelicotekin, bizi zuen etxea, espazio pribatua, bortxaketa asko. Gonzalesek Bilbo- ko Santutxu auzoan bere bikotekidearekin bizi zuen

etxea, espazio pribatua, heriotza bat. Andreen gorpu- tza publikoa denean, espazio pribatua eta publikoa trantsizio eremu soilak dira, beraz, segurtasuna mitoa izango da patriarkatua existitzen den bitartean.

Horrek esan nahi du beldurrez bizi behar dugula? Bada, ahal bada ez, estrategia emantzipatzaileak behar dira, eta ez hertsatzaileak. Nerea Barjolak “Mi- crofísica sexista del poder. El caso Alcàsser y la cons- trucción del terror sexual” liburuan azaltzen du nola terrore sexualaren errelatoak, beldurra zabaltzeak, zenbait egoera neutral arriskutsu gisa birdefinitzen

«Zigorren eta segurtasunaren mitoak itsututa ardurak hartu beharrean arduradunak kanporatzen jarraitzen badugu, indarkeriok sortzen dituzten sistemak betikotuko ditugu»

dituen, adibidez, gauez bakarrik ibiltzea, eta nola era- giten duen neska eta andreek, modu orokortuan –sal- buespenekin–, portaera horiek bertan behera uztea.

Segurtasuna irabazteko ahaleginetan, beraz, askata- suna galtzen bukatzen dugu, baina batak ez luke izan beharko bestearen arerio: (sexu) harremanen testuin- guruan, kasurako, lortu dugu gutxieneko adostasun bat eta printzipio gisa finkatu dugu onespina eta eze- tza errespetatzeko betebeharra. Lorpen garrantzitsua da hori, dudarik gabe. Baina patriarkatuaz libratzen garen arte, baiezkoa askatasun osoz emateko aukerez ere hitz egin beharko genuke.

Ez ditzagun erosi munstroak saldu nahi dizkiguten narratibak eta, indarkeriak bizi gaituzten bitartean, aitortu dezagun beldurak desobeditzeko praktiken botere askatzailea, datorrena datorrela. •